

***MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DEL TURNO DE OFICIO / OFIZIOKO  
TXANDAKO ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA  
(Nuevo Régimen Disciplinario / Diziplina araubide berria)***

Uno de los campos en los que se hace necesaria la regulación del Sistema de Turno de Oficio por la Junta de Gobierno es el relativo al control deontológico de aquellos profesionales que lo prestan. La naturaleza de nuestra profesión, orientada a garantizar la efectividad de un derecho fundamental como es la defensa del justiciable, impone unas reglas que trascienden la rígida letra de la ley exigiendo al abogado/a, en último término, el compromiso añadido de respeto y cumplimiento de la deontología que se le exige.

La ausencia de una regulación acorde con las actuales circunstancias en nuestro antiguo Reglamento ha hecho necesaria la adopción de un acuerdo por nuestra Junta de Gobierno, el pasado día 21 de Mayo de 2014, que adecuara a la realidad profesional la potestad disciplinaria del Colegio, estableciendo las conductas que dentro del funcionamiento del turno de oficio y asistencia letrada deban ser sancionadas, y tipificando las sanciones que, conforme al Estatuto General de la Abogacía, Código Deontológico y Ley de Colegios Profesionales, han de regular la capacidad disciplinaria colegial.

De ahí que esta modificación no suponga una nueva redacción del Reglamento del Turno de Oficio, que continúa plenamente operativo, sino más bien una adición al mismo alineándolo con las tendencias de otras reformas realizadas por otros Colegios Profesionales de nuestro entorno, y desde luego sobre la base de la experiencia que tenemos en Bizkaia en su funcionamiento. Como características fundamentales de esta reforma pueden destacarse las siguientes:

1.- La modificación entra en vigor el próximo día 1 de Septiembre de 2014.

2.- Se califican las faltas en muy graves, graves y leves, tipificándose una serie de conductas pero

Gobernu Batzordeak Ofizioko Txandaren sistema nahitaez arautu behar du txanda horretan ari diren profesionalen kontrol deontologikoari dagokionez. Gure lanbideak oinarrizko eskubide baten eraginkortasuna bermatu nahi du, hain zuzen ere, epaituaren defentsa. Horretarako, arau batzuk ezartzea nahitaezkoa da, legearen hitzez hitzekotasuna gainditzen dutenak, hain zuzen ere, abokatuari konpromiso gehigarriak eskatzeko, hala nola, deontologia gorde eta betetzea.

Gure erregelamendu zaharrear gaur egungo inguruabarrekin bat datorren arauketarik ez dagoenez, gure Gobernu Batzordeak, joan den maiatzaren 21ean, akordio bat hartu zuen, Bazkuneko diziplina ahala lanbidearen errealitatera egokitzeko. Horrenbestez, ofizioko txandaren eta abokatuaren laguntzaren inguruan zehatu beharreko jarrerak eta tipifikatu beharreko zehapenak ezarri ziren, Abokatutzaren Estatutu Orokorren, Kode Deontologikoaren eta Lanbide Elkargoen Legearekin bat etorritik eta Bazkunak diziplina arloan duen ahalmena erabiliz.

Egia esan, aldaketa honek ez dakar ofizioko txandaren erregelamenduaren idazketa berria, indarrean jarraitzen baitu. Erregelamenduan gehikuntza bat egin da. Gure inguruko beste lanbide elkargo batzuek egindako eraldaketen joerekin lerrokatu nahi da, eta zalantzarik gabe, Bizkaian horren inguruan dugun esperientzia oinarri hartuta. Eraldaketa horren funtsezko osagai moduan, hauek nabarmendu daitezke:

1.- Aldaketa 2014ko irailaren 1ean jarriko da indarrean.

2.- Faltak izango daitezke: oso larriak, larriak eta arinak. Zenbait jarrera tipifikatu dira, baina guztiak

todas ellas con carácter meramente enunciativo.

3.- Se penaliza gravemente la sustitución en la asistencia o el turno no autorizada por el Colegio, como medio de evitar una práctica no deseable pero de cierta habitualidad entre los colegiados.

4.- Se establece como pena la exclusión del profesional sancionado/a en el Servicio de Turno de Oficio y/o Asistencia al detenido por determinados plazos, con independencia de la suspensión cautelar prevista en el Procedimiento Disciplinario.

5.- Cabe la sustitución de la sanción, si esta se cometiera durante o con relación a la prestación de la guardia de asistencia, y atendiendo a su graduación, por la exclusión de asignación de guardias en número de 1 a 6, de aquéllas que en los turnos siguientes corresponderían al Letrado o Letrada sancionados, atendiendo a la graduación de la infracción.

6.- La modificación resulta igualmente de aplicación a los servicios de Asistencia Jurídica Inmediata a personas Víctimas de Delitos de Violencia sobre la Mujer, de Violencia Doméstica y de Agresiones Sexuales, El Servicio de Asistencia Penitenciaria en la Prisión de Basauri y el Servicio Especial de Derivación y Acceso de Personas Extranjeras a la Asesoría Jurídica Especializada, así como a otros servicios de características similares que pudiera crear el Colegio en el futuro.

A continuación, acompañamos el texto de la modificación.

***Norma General decimoctava bis del Reglamento del Turno de Oficio:***

*Serán infracciones cometidas con motivo de la prestación del Turno de Oficio y Asistencia al Detenido, además de las conductas de índole general previstas en el Estatuto General de la Abogacía, Código Deontológico y Leyes de Colegios Profesionales, de carácter estatal o autonómico, las que constituyan vulneración de las normas propiamente reguladoras del Turno de Oficio y de Asistencia al Detenido y, en particular, con carácter meramente enunciativo, las siguientes:*

enuntziatu izaera hutsarekin.

3.- Modu larrian zigortzen da laguntzan edo txandan ordeztea, Bazkunak baimendu ez badu, elkargokideen artean desiragarria ez den baina nahikotan egiten den jardun bat saihesteko.

4.- Zigor moduan ezarri da zehatutako abokatua ofizioko txandatik eta/edo atxilotuari laguntzeko zerbitzutik kanpo uztea zenbait epetan, diziplina prozeduran ezarritako kautelazko etetea gorabehera.

5.- Arau-haustea laguntza guardia egiten den bitartean edo horri lotuta egiten bada, aurreko zehapenen ordez ezar daiteke hurrengo guardien esleipenetatik kanpo geratzea, 1 eta 6 aldi bitartean, arau-haustearen graduazioari erreparatuz.

6.- Aldaketa modu berean aplikatzeko modukoa da emakumeen aurkako indarkeria delituen biktimei emandako berehalako laguntza zerbitzuetan, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen kasuetan, Basauriko espetxeko laguntza zerbitzuan eta atzerritarrak laguntza juridiko espezializatura bideratzeko zerbitzu berezian, baita Bazkunak etorkizunean sor ditzakeen antzeko ezaugarriko beste zerbitzu batzuetan ere.

Jarraian, aldaketaren testua jaso dugu.

***Ofizioko Txandaren Erregelamenduko hamazortzigarren bis arau orokorra:***

*Ofizioko txandan eta atxilotuari laguntza ematerakoan arau-haustek izango dira, Abokatuen Estatutu Orokorrean, Kode Deontologikoan eta Lanbide Elkargoen Legean ezarritako izaera orokorreko jarrerez gain, ofizioko txandaren eta atxilotuari emandako laguntzaren arauak urratzen dituztenak, eta, zehatz esanda, hurrengo hauek, besteak beste:*

- *Serán faltas muy graves:*

- 1) *La inasistencia injustificada a una vista.*
- 2) *La no prestación injustificada de la guardia de 24 horas para la que se haya sido designado.*
- 3) *El no estar localizable en el periodo asignado para quienes presten el Turno de Asistencia al Detenido por asistencias individualizadas.*
- 4) *La inasistencia injustificada al turno de asistencia y/o orientación que se tenga asignado.*
- 5) *La percepción de honorarios del cliente de Turno de Oficio sin tener derecho a ello.*
- 6) *La conformidad en juicio penal, cuando resulte de manifiesta temeridad.*
- 7) *La captación de servicios, asistencias o designaciones.*

- *Serán faltas graves:*

- 1) *La no remisión de los partes de asistencia en el plazo previsto.*
- 2) *La sustitución no autorizada en el servicio, tanto para el sustituto como para el sustituido.*
- 3) *El retraso injustificado en la incorporación al Servicio designado.*
- 4) *La desatención de la asistencia al justiciable en el Juzgado, posterior a su asistencia en Comisaría.*
- 5) *Las alegaciones de insostenibilidad cuando resulten de manifiesta temeridad.*
- 6) *La percepción de honorarios del cliente de Turno, en los casos que se tenga derecho a ello, o del contrario por condena en costas, sin ponerlo en conocimiento del Colegio.*
- 7) *La ocultación de alguna causa de incompatibilidad para acceder al Servicio.*
- 8) *En su caso, no retirar el aparato de búsqueda al inicio de la guardia o no devolverlo en el plazo previsto, una vez finalizada la guardia.*
- 9) *No facilitar al Colegio la documentación cuando sea requerido.*
- 10) *La reiteración de dos faltas leves dentro de un periodo de tres meses.*

- *Falta oso larriak izango dira:*

- 1) *Ikustaldi batera justifikaziorik gabe ez bertaratzea.*
- 2) *24 orduko guardiarako izendatu eta guardia hori justifikaziorik gabe ez ematea.*
- 3) *Atxilotuari laguntzeko txanda ematen dutenen kasuan, esleitutako aldian aurkitzeko moduan ez egotea.*
- 4) *Esleituta duen laguntza eta/edo orientazio txandara justifikaziorik gabe ez agertzea.*
- 5) *Ofizioko txandako bezeroarengandik zerbitzuari jasotzea, horretarako eskubiderik izan gabe.*
- 6) *Adostasuna ematea zigor epaiketean, ausarkeria nabaria denean.*
- 7) *Zerbitzuak, laguntzak edo izendapenak erakartzea.*

- *Falta larriak izango dira:*

- 1) *Laguntza parteak ezarritako epean ez igortzea.*
- 2) *Zerbitzuan baimenik gabe ordezipena egitea, ordeztuaren zein ordezten duenaren kasuan.*
- 3) *Izendatutako zerbitzuan justifikaziorik gabe atzerapenez sartzea.*
- 4) *Epaitegian epaituari laguntza ez eskaintzea, polizia-etxean laguntza eskaini ondoren.*
- 5) *Defendaezintasun alegazioak egitea, ausarkeria nabarikoak direnean.*
- 6) *Txandako bezeroarengandik zerbitzu-sariak jasotzea, horretarako eskubidea dagoen kasuetan, edo aurkakoarengandik kostuetara kondenatzen den kasuan, Bazkunari ezer jakinarazi gabe.*
- 7) *Zerbitzuan sartzeko bateraezintasun arrazoiren bat ezkutatzea.*
- 8) *Hala denean, guardiaren hasieran bilaketa aparatua ez hartzea edo ezarritako epean ez itzultzea, guardia amaitu ondoren.*
- 9) *Bazkunari dokumentazioa ez ematea, hori eskatzen zaionean.*
- 10) *Hiru hileko epearen barruan bi falta arin egitea.*

- *Serán faltas leves:*

- 1) *Las faltas enumeradas en el párrafo anterior, cuando no tengan suficiente entidad para ser consideradas graves.*
- 2) *La negligencia en el cumplimiento de las normas específicas de cada Turno o Servicio.*

***Norma General decimoctava ter del Reglamento del Turno de Oficio:***

*Las infracciones cometidas con motivo de la prestación del Turno de Oficio y Asistencia al Detenido serán sancionadas conforme a lo previsto en el Estatuto General de la Abogacía, Código Deontológico y Leyes de Colegios Profesionales, de carácter estatal o autonómico, y llevarán aparejada, además, la exclusión del Abogado o Abogada en el Servicio de Turno de Oficio y/o Asistencia al Detenido por los siguientes plazos:*

*a) Si fuese sancionado como autor de una falta leve, quedará excluido durante un periodo máximo de seis meses naturales, y si fuera reincidente, hasta un período de un año.*

*b) Si fuese sancionado como autor de una falta grave, quedará excluido durante un periodo mínimo de un año y máximo de dos años naturales, y si fuera reincidente, hasta un periodo de tres años.*

*c) Si la sanción recaída lo fuese por comisión de una falta muy grave, quedará excluido durante un periodo mínimo de dos años y máximo de tres años. Y si fuere reincidente, podrá ser separado del o los Servicios de forma definitiva.*

*d) Si la infracción se cometiera durante o con relación a la prestación de la guardia de asistencia, las sanciones anteriores podrán ser sustituidas por la exclusión de asignación de guardias en número de 1 a 6, de aquéllas que en los turnos siguientes corresponderían al Letrado o Letrada sancionados, atendiendo a la graduación de la infracción.*

*Todo ello sin perjuicio de la sanción que pudiera imponerse en relación con su ejercicio profesional, y la rehabilitación en el mismo que pueda producirse respecto de este último.*

*Una vez cumplida la sanción, para volver a formar parte de las listas el colegiado deberá solicitar del*

- *Falta arinak izango dira:*

- 1) *Aurreko paragrafoan ezarritako faltak, falta larritzat hartzeko beste garrantzia ez dutenean.*
- 2) *Txanda edo zerbitzu bakoitzeko arau zehatzak betetzean zabarkeriaz aritzea.*

***Ofizioko Txandako Erregelamenduaren hamazortzigarren ter arau orokorra:***

*Ofizioko txanda egitean eta atxilotuari laguntza eskaintzean egindako arau-haustea Abokatutzaren Estatutu Orokorrean, Kode Deontologikoan eta Lanbide Elkargoen legeetan (estatukoak edo autonomia erkidegokoak) ezarritakoaren arabera zehatuko dira, eta horrez gain, abokatua ofizioko txandatik eta/edo atxilotuari emandako laguntza zerbitzutik kanporatuko da, epe hauetarako:*

*a) Falta arin bategatik zehatu badute, gehienez ere egutegiko sei hilabeterako kanporatuko dute, eta berrerorlea bada, gehienez ere urtebeterako.*

*b) Falta larri baten egile izategatik zehatu badute, gutxienez egutegiko urtebeterako eta gehienez bi urterako kanporatuko dute, eta berrerorlea bada, gehienez ere hiru urterako.*

*c) Falta oso larri baten egile izategatik zehatu badute, gutxienez bi urterako eta gehienez hiru urterako zehatuko dute. Eta berrerorlea bada, zerbitzutik edo zerbitzuetatik behin betiko kanporatu dezakete.*

*d) Arau-haustea laguntza guardia egiten den bitartean edo horri lotuta egiten bada, aurreko zehapenen orde zezar daiteke hurrengo gardien esleipenetatik kanpo geratzea, 1 eta 6 aldi bitartean, arau-haustearen graduaizoiari erreparatuz.*

*Hori guztia lanbide jardunari lotuta ezar daitekeen zehapena gorabehera, eta jardun horretan egin daitekeen birgaitzea gorabehera.*

*Behin zehapena beteta, berriro ere zerrendetan sartzeko, elkargokideak Bazkunari eskatu beharko dio espezialitatean edo espezialitateetan berriro sartzeko, betiere, betetzen baditu une horretan*

*Colegio su reincorporación a o las especialidades en las que cumpla los requisitos exigibles en esos momentos conforme a la normativa colegial existente para cada especialidad.*

***Ámbito de aplicación de las cláusulas decimotava bis y ter del Reglamento del Turno de Oficio, para los Servicios Especiales de Violencia Doméstica, Asistencia Penitenciaria y Servicio Especial de Extranjería.***

*La normativa recogida en la cláusula decimotava bis del Reglamento del Turno de Oficio, será de aplicación igualmente a la actividad que los colegiados realicen a través de la organización colegial de los servicios de: Asistencia Jurídica Inmediata a personas Víctimas de Delitos de Violencia sobre la Mujer, de Violencia Doméstica y de Agresiones Sexuales, El Servicio de Asistencia Penitenciaria en la Prisión de Basauri y el Servicio Especial de Derivación y Acceso de Personas Extranjeras a la Asesoría Jurídica Especializada, así como aquellos otros servicio análogos que puedan organizarse por el Colegio en estas u otras especialidades*

*espezialitate bakoitzari dagokionez Bazkuneko araudiaren arabera ezarrita dauden betekizunak.*

***Ofizioko Txandaren Erregelamenduko hamazortzi bis eta ter klausulen aplikazio esparrua, etxeko indarkeriaren, espetxe laguntzaren eta atzerritarren zerbitzu berezietarako.***

*Ofizioko Txandaren Erregelamenduko hamazortzi bis klausulan jasotakoa aplikatuko da baita ere elkargokideek Bazkunaren bitartez zerbitzu hauetan egiten duten jardueran: emakumeen aurkako indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen delituen biktimei eskaintzen zaien berehalako laguntza juridikoa, Espetxeko Laguntza Zerbitzua Basauriko espetxean, eta Atzerritarrek aholkularitza juridiko espezializatura bideratu eta sartzeko zerbitzu berezia, baita Bazkunean espezialitate horietan edo beste batzuetan antolatu daitezkeen antzeko zerbitzuak.*

**JAVIER BOLADO**  
**SECRETARIO / IDAZKARIA**